

## M.A.R.E.A. FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Gure proiektua aurrera eramateko, honako hauek dira M.A.R.E.A.-ren arrakastarako beharrezkoak diren baliabideak, bai ukigarriak bai ukiezinak.

### BALIABIDE FISIKOAK:



Gure proiektuaren oinarria saltzen dugun produktu bera da, beraz, gure instalazioen eta materialen kalitate eta funtzionamendu zuzena ezinbestekoak dira.

Bezeroen eskariei erantzuteko, garrantzitsua da eguneroko lan-kopurua betetzea robotak kudeatzeko, gure produktua ezarritako denboran entregatu ahal izateko eta produktibitatea ahalik eta gehien mantentzeko.

Oinarrizkoa da gure materialen kalitatea ahalik eta onena izatea, gure langileek modu egokian erabil dezaten.

Kalitateaz gain, gure materialak ahalik eta ekologikoenak izango dira. Ingurumenarekin kontaktu zuzena izatea eta kontsumo arduratsua izatea oso garrantzitsua da bai gure enpresarentzat bai gure produktuarentzat, proiektuaren helburua delako.

### BALIABIDE INTELEKTUALAK:



Gure enpresako lider eta langileen esperientzia oso garrantzitsua da, hau da, gure esperientzia propioa bai enpresako mailan bai roboten kudeaketa, egokitzapena eta mantentze-lanak ezagutzeko orduan.

Gure ezagutza robot egokien aukeraketan, bezeroen (udaletxeak, erakunde ingurumenekoak, etab.) beharrak asetzeko egokitzapenean eta haien funtzionamendu zuzena bermatzeko dago. Honek kalitatezko zerbitzua eskaintzea eta arazo operatiboak gutxitzeko aukera ematen digu, bezeroen asebetetzeaz ziurtatuz eta merkatuko ezagutza faltagatik lehiaren arriskua murriztuz.

### GIZA BALIABIDEAK:

Gure langileen esperientzia funtsezkoa da M.A.R.E.A.-ren arrakastarako. Horregatik, beraien esperientzia propioa eta prestakuntza lanaren garapenerako oinarrizkoak dira. Ekintzaile taldea 4 pertsonaz osatuta dago eta bakoitzak funtsezko baliabide bat kudeatzen du:



Aitziber: Koordinazio orokorra eta erabaki estrategiko guztiak hartzen ditu. Finantzak, hornidura, administrazioa eta proiektuaren operazio guztiak gainbegiratuko ditu, baita bezero nagusiekin harremanak ere.

Leire: Marketing eta salmenten arloan ardura nagusia du. Epe luzerako estrategiak garatzen ditu, prezioak ezartzen ditu eta robotak bezeroetara modu eraginkorrean iristen direla ziurtatzen du.

Shirley: Operazio eta mantentze-lanak kudeatzen ditu, roboten funtzionamendua eta kalitatea kontrolatzen du, eta Aitziber eta Leire laguntzen ditu proiektua modu egokian aurrera eramaten.

Unai: Langileen koordinazioa eta giza baliabideak kudeatzen ditu. Lanordua eta eginkizunak antolatzen ditu, eta proiektuaren barne-jardura guztiak gainbegiratuko ditu.

## FINANTZA BALIABIDEAK:



M.A.R.E.A.-ren finantza-baliabideak hasierako inbertsio batetik etorriko dira, beharrezko ekipamendua eta baliabideak (robotak, bulegoa, marketina, etab.) erosteko. Ondoren, proiektuaren irabaziekin jardura ekonomikoa mantenduko da eta gastuak estaliko dira. Aitziber arduratuko da finantzen kudeaketaz, gastuak kontrolatuz eta diru-sarrerak modu eraginkorrean antolatuz, proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko.